

# Txinatar literatura euskaraz: zeharbidezko itzulpenetatik zuzenekoetara itzultzaile- bikoteen eskutik

Aiora Jaka Irizar

Itzultzailea, Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea

Maialen Marin-Lacarta

Itzultzailea, Universitat Oberta de Catalunya irakaslea

Artikulu honetan, orain artean txineratik euskarara itzultako literatur testuen gainbegiratu bat eskaintzen dugu. Txineratiko euskal itzulpenak oso bakanak eta heterogeneoak izan diren arren, gehienek badituzte zenbait ezaugarri komun (literatura klasikoa da nagusi; poemak, alegiak edo pentsamenduari lotutako testuak itzuli dira; itzultzaileen ekimenez egin dira ia denak; zeharbidezkoak dira gehienak, eta xede-kulturari begira eginikoak). Bestalde, bilakaera bat nabari da itzulpen zaharrenetatik berrienetara: gero eta garrantzi handiagoa ematen zaio zuzenean txineratik itzultzeari, eta, zeharbidez itzuliz gero, zubi-hizkuntza zehazteko joera ari da nagusitzen; bestalde, sorburu-hizkuntzan aditua den ikertzaile baten eta xede-hizkuntzan esperientzia duen itzultzaile baten arteko elkarlana gero eta fenomeno ohikoagoa ari da bihurtzen. Artikulu honen bi egileok itzultako Mo Yanen *Hori da umorea, maisu!* lana bat dator, zentzu horretan, txineratik egindako itzulpen berrienen ezaugarriekin.

GAKO-HITZAK: Txinatar literatura euskaraz · Zeharbidezko itzulpena · Zuzeneko itzulpena · Elkarlanean egindako itzulpena.

## Chinese literature in Basque: towards direct translations through teamwork

This article offers an overview of the Chinese literary texts translated so far into Basque. Although Basque translations of Chinese texts are very scarce and heterogeneous, most of them share certain common characteristics (mostly classical literature; poetry, fables or Chinese thought; promoted by the translators themselves; indirect and target-oriented). Moreover, we can see an evolution in the way to translate: more and more importance is given to direct translation from Chinese, and when a text is not translated directly from the source language, the trend is to specify the intermediary language; in addition, the collaboration between an expert in the source language and an experienced translator in the target language is becoming a common phenomenon. In this sense, the work *Hori da umorea, maisu!* by Mo Yan, translated into Basque by the authors of this article, shares some characteristics with the most recent translations from Chinese.

KEY WORDS: Chinese literature in Basque · Indirect translation · Direct translation · Team translation.

*Jasotze-data:* 2013-12-17. *Onartze-data:* 2014-02-26.

## 1. Sarrera

Literaturako Nobel Saria Mo Yan (莫言)<sup>1</sup> idazle txinatarrak irabazi zuen 2012. urtean, eta, albisteak jakin orduko, Elkar argitaletxeak eta Arrasate Euskaldun Dezagun elkarteak Jokin Zaitegi Sariketa antolatzeari ekin zioten. Urteroko Literatura Nobel Saridunaren lan bat itzultzea izaten da sariketa edo lehiaketa horren xedea, eta, 2012koan, artikulu honen bi egileok lortu genuen, lehiaketa irabazita, Mo Yanen *Hori da umorea, maisu!* narrazio-bilduma itzultzeko enkargua. Lanari ekin aurretik, pentsatu genuen komenigarria litzatekeela orain arte txineratik ezer euskaratu ote den ikustea, eta, euskaratu bada, zer eta nola itzuli den aztertzea. Lehen bilaketa orokor bat eginda konturatu ginen oso lan gutxi itzuli zirela txineratik euskarara, eta, gainera, itzulitako testu horien ezaugarriak oso bestelakoak zirela, oro har, guk egin beharreko itzulpenarekin alderatuta. Orain, gure itzulpena argitaratuta dagoela, abagune egokia iruditu zaigu txinatar literaturak euskaldunon artean izan duen presentziaz edo harreraz edo, hobeto esanda, utzi dituen arrasto edo zipriztinez hainbat gogoeta egiteko. Artikulu honetan, beraz, orain artean euskaraz argitaratu den txinatar literaturaren zipriztinei gainbegiratu bat emango diegu, itzulpen horien ezaugarriak deskribatu, ezaugarri horiek gure itzulpenaren berezitasunekin alderatu eta txineratik itzulpen gintzaren bilakaerari buruzko ondorio orokor batzuk ateratzeko<sup>2</sup>.

## 2. Txinatar literatura euskaraz

Arestian aipatu bezala, txinatar literaturak euskal literatur sisteman izan duen lekua hutsaren hurrengoa izan da XXI. mendera arte<sup>3</sup>. Gainera, aurrerago ikusiko dugun bezala, kaleratutako itzulpen gehienak zubi-hizkuntzaren bat erabilia egin dira. Gure asmoa ez da txineratik euskarara egin diren literatur itzulpenen katalogo zehatza eskaintzea, baina artikulu honen helburuetarako ezinbestekoa da katalogo horretarako hurbilketa bat egitea. EIZI Eren webguneko Literatur Itzulpenen Katalogoan bilatuta, txineratik itzulitako 5 liburu besterik ez dugu aurkitu:

---

1. Autore baten izena lehen aldiz aipatzen dugunean, parentesi artean txineraz jarri dugu. Izenak transkribatzeko *pinyin*a erabili dugu.

2. Ikerketa-lan hau Espainiako Zientzia eta Berrikuntzako Ministerioak finantzaturiko bi ikerketa-proiekturen barruan egin da: batetik, Carles Prado-Fontsek zuzenduriko «Interacciones entre España y China en la época contemporánea: 1898-1949» (MICINN HAR2012-34823) proiektua, eta bestetik Joseba A. Lakarrak zuzenduriko «Monumenta linguae Vasconum (IV): Textos arcaicos vascos y euskera antiguo» (FFI2012-37696) proiektua. Gainera, Eusko Jaurlaritzak finantzaturiko «Historia de la lengua vasca y lingüística histórico-comparada» (GIC 07/89-IT-473-07) ikerketa-talde kontsolidatuaren eta UFI11/14 erreferentziadun UPV/EHUko Prestakuntza eta Ikerketa Unitatearen («Hizkuntzalaritza Teorikoa eta Diakronikoa: Gramatika Unibertsala, Hizkuntza Indoeuroparrak eta Euskara») lanen artean kokatzen da.

3. Gure esker ona adierazi nahi diegu Xabier Etxaniz, Xabier Izaga, Karlos Santisteban eta Josu Zabaleta itzultzaileei, informazio eske joan gatzazkienean inolako erreparatu nahiz luzamendurik gabe erantzun baitiete gure galderei. Bestalde, gure eskerrik beroenak eman nahi dizkiogu, orobat, Gidor Bilbaori, bere laguntza, zuzenketa eta gomendioek nabarmen hobetu baitute artikulu honen edukia.

*Itsasoko mamuak* (1987), Karlos Santistebanek itzulia; Pu Songling (蒲松齡) idazlearen lau ipuin biltzen ditu.

*Pu Songlingen ipuinak* (1988), Xabier Kaltzakortak itzulia; Pu Songlingen eta beste autore batzuen 51 ipuin biltzen ditu.

*Ekialdeko ipuin miresgarriak* (1988), Xabier Kaltzakortak itzulia; Txinako eta Ekialde Urruneko 32 ipuin biltzen ditu.

*Gerraren antzea* (1995), Xabier Izagak itzulia; estrategia militarren inguruko tratatua da, eta Sunzi (孫子) txinatar jenerala da ustezko egilea<sup>4</sup>.

*Urrutira bidalia* (2005), Albert Galvanyk eta Pello Otxotekok itzulia; Li Bai (李白) poetaren hainbat poema biltzen ditu.

Katalogo horren osagarri den Itzulpenen Katalogoan ere bilatu ditugu «txina», «txinatar», «txinar» eta antzeko hitzekin lotutako itzulpenak, eta beste bat aurkitu dugu:

*Larruzko botaren ikerketa* (1986), Mainer Etxaidek euskaratua; XIV.-XV. mendeetako Txinako ipuin bat da, liburuaren azalean esaten denaren arabera «txinar anonimoa».

Espainiako ISBNren datu-basean antzeko bilaketa bat eginda, jatorriz txineraz idatzitako hainbat pentsamendu-testuren itzulpenak biltzen dituzten bi liburu aurkitu ditugu<sup>5</sup>:

*Dao de jing* (2007), taoismoaren oinarritzko testua, ustez Laozi (老子) filosofoak idatzia, Pilar Lasartek eta Joxe Arregik itzulia.

*Analektak* (2008), konfuzionismoaren lan nagusia, ustez Konfuzio (孔子) maisuaren ikasleek bildua, Patxi Ezkiagak itzulia.

Biak ere filosofiaren eta erlijioen irakaskuntzara bideratutako bildumetan argitaratutako testuak diren arren eta ez helburu literario hutsengatik egindako itzulpenak, azterketa honetan aipatzeko modukoak iruditu zaizkigu, Txinako literaturaren historian literatur testu gisa aztertu ohi dira-eta; izan ere, kontuan hartzekoa da literaturaren definizioa gurea baino zabalagoa izan dela txinatar literaturaren alorrean.

Pentsamendu-testuen alorrean sartzeko modukoak izan litezke, halaber, Federiko Krutwigek itzuli eta 1968 eta 1972 artean argitaraturiko Mao Zedongen (毛泽东) lau liburuak, literaturaren mugen barruan ala kanpoan kokatzekoak diren eztabaidagarria izan daitekeen arren, laurak ere politikaren alorrari baitagozkio:

---

4. Liburu hau gerrako tratatua da, literaturaren mugetan dagoen saiakera-lana, baina halere gure azterketan sartzea erabaki dugu.

5. Ho Chi Minh vietnamdarraren *Gartzelako egunkaria* ere, Iñaki Aramaiok euskaratua, agertzen da emaitza horien artean (Susa argitaletxea, Lizarra, 1985). Gauza jakina da Ho Chi Minhek txineraz idatzi zituela poema horiek, 1942-1943an, eta, beraz, hemen aztertu beharko genituzke gure aztergaia «txinerazko literatura» balitz. Gure ikerketa txinatar literaturara mugatu dugunez, baina, ez dugu gainerako itzulpenen ondoan aztertuko.

*Liberalkeriari aitzi* (1968)  
*Praktikaz* (1968)  
*lazargoaz* (1969)  
*Mao Tzedung buruzagiaren aiphuak* (1972)

Azkenik, beste katalogo eta datu-base batzuetan bestelako bilaketa batzuk eginda<sup>6</sup>, beste hiru liburu hauek topatu ditugu:

*Berdez jantzitako neska (Txinako ipuinak I)* (1988), Xabier Etxanizek itzulia; Txinako 20 herri-ipuin biltzen ditu.  
*Zazpi ahizpak (Txinako ipuinak II)* (1992), Xabier Etxanizek itzulia; aurrekoaren jarraipen moduan argitaratutako liburukia, beste 20 herri-ipuinekin.  
*Txina zaharreko kontu zaharrak* (1989), Josu Zabaletak itzulitako hamar herri-ipuin, haurrentzako «Ganbara» sailaren barruan argitaratuak.

Katalogo eta datu-baseetan itzulpen gisa sailkatuta ageri ez badira ere, orri hauetara ekarri nahi izan ditugu, halaber, Rafa Eigurenen bi argitalpen, hainbat autore txinatarren poemen euskal itzulpenak biltzen baitituzte:

*Mandarin Dotore: VIII. mendeko olerkiak* (2003), Li Bai, Wang Wei (王维) eta Du Fu (杜甫) idazleen poemak euskaraturik biltzen dituen liburu-diskoa, Jose Luis Zumetaren irudiekin eta Joserra Senperenaren piano-musikarekin.  
*Gauza guztiak* (2011), Rafa Eigurenek Txinan egindako egonaldian jasotako oharren bilduma, non idazlearen beraren hausnarketak Txinako literaturaren altxorrekin nahasten diren. Zhuangzi (庄子) pentsalariaren parabolak eta Li Bai, Wang Wei, Du Fu eta Bai Juyi (白居易) idazleen poemen itzulpenak dakartza.

Zerrenda labur hori euskal literatur aldizkarietan edota hainbat idazle-itzultzairenen poesia-antologietan argitaratutakoarekin osatu behar da. Lehenengoei dagokienez, eta azaleko bilaketa bat egin ondoren, honako lau adibide hauek aipatuko genituzke, nabarmenenak direlakoan:

«Mao Tse-Tung-en olerkiak», Santi Onaindiak itzuliak eta *Oleri* aldizkarian argitaratuak 1968an. Aipagarriak iruditu zaizkigu inoiz euskaraz argitaratu diren lehen testu txinatarrak izan daitezkeelakoan.  
«Poema batzu», Li Bai idazlearenak, Joseba Sarrionandiak itzuliak eta *Idatz & Mintz* aldizkariaren 3-4 zenbakien separatan argitaratuak, 1982an.  
«Txinako poesiaz» izenburupean, Itxaro Bordak hainbat poema txinatar euskaratu eta argitaratu zituen 1985ean *Maiatz* aldizkariaren 10. zenbakian, gehienak autore garaikideenak.  
«Xinatar ipui» batzuk ageri dira euskaraz *Maiatz* aldizkariaren zenbaki berebean, Itxaro Bordaren poema itzulien ondoren, Marcel Etchehandyk itzuliak, itxuraz anonimoak.

---

6. «Euskarari ekarriak» webgunearen bilaketa-tresna eta egile-zerrenda baliatu ditugu, besteak beste, bilaketarako.

«Txinako ipuinak», Josu Zabaletak itzuliak eta 1987ko *Egan* aldizkariaren 1-2 zenbakian argitaratuak. 30 ipuin anonimo labur-labur dira.

Euskal idazle-itzultzaileen itzulpen-antologia batzuetan ere aurkitu ditugu hainbat poema txinatar euskarara itzuliak. Gehiago ere izan daitezkeen arren, guk bi idazleren lanak aipatuko ditugu:

Joseba Sarrionandiak, *Izkiriaturik aurkitu ditudan ene poemak* (1985) liburuan, Du Fu txinatarraren 6 poema eta 4 poema txinatar anonimo argitaratu zituen. *Hezurrezko xirulak* (1991) liburuan beste poema txinatar bat tartekatu zuen Sarrionandiak: kasu honetan, Wang Weirena. Azkenik, *Alkohola poemak* (1984) antologian, Du Furen poema bat eta Li Bairen bi ageri dira Sarrionandiak euskaraturik.

*Bertzerenak* (2006) liburuan, adibide berriago bat eskaintzearen, Luigi Anselmi idazle-itzultzaileak, garai, herri eta tradizio desberdinetako olerkien euskal itzulpenak eskaintzen ditu, Sarrionandiaren antzera; tartean, Li Bairen bi poema, Du Furen bat eta Liu Kezhuang (刘克庄) idazlearen beste bat.

Ikusitakoak ikusita, beraz, txinatar literaturaren «presentziaz» baino areago, «zipriztinez» hitz egin behar da euskal literaturaz ari garenean. Ondoko taulan, aipatutako itzulpen horiek kronologikoki eta itzultzailearen izenaren arabera zerrendatuko ditugu:

ITZULTZAILEA	GENEROA	AUTOREA edo ITURRIA <sup>7</sup>	GARAIA	ARGITALPENA	URTEA
Santi Onaindia	poesia	Mao Zedong	1893-1976	aldizkaria: <i>Oleri</i>	1968
Federico Krutwig	pentasamendua	Mao Zedong	1893-1976	liburua: <i>Liberalkeriar</i> liburua: <i>Praktikaz</i> liburua: <i>Iazargoaz</i> liburua: <i>Mao Tzedung</i>	1968 1968 1969 1972
Joseba Sarrionandia	poesia	Li Bai	701-762	aldizkaria: <i>Idatz &amp; Mintz</i> antologia: <i>Alkohola</i>	1982 1984
		Du Fu	712-770	antologia: <i>Izkiriaturik</i> antologia: <i>Alkohola</i>	1985 1984
		ANONIMOAK	— — —	antologia: <i>Izkiriaturik</i>	1985
		Wang Wei	701-761	antologia: <i>Hezurrezko</i>	1991

7. Batzuetan, literatura klasikoaren kasuan, ez dago argi nor izan den autore. Askotan gertatu da, adibidez, jatorrizko testuak desagertzea eta gerora autore batek bildu eta berridaztea, edo historian zehar autore jakin bat mitifikatzea eta gerora frogatzea testu hori ez zuela autore hark idatzi edota haren biografia ez dela guztiz egiazkoa. Esate baterako, frogatuta dago Konfuzioren *Analektak* ez zituela Konfuziok berak idatzi, baizik eta haren ikasleek bildu zituztela. Zerrenda honetan ageri diren Laozi, Sunzi, Huangdi (Enperadore Horia) eta Zhou dinastiako Mu erregea (Zhou Mu Wang) mito bihurtu diren pertsonaia historikoak dira, eta zaila izaten da mitoa eta errealitatea bereiztea. Halere, tradizioari jarraituz, zerrenda honetan ustezko autore horiek jarri ditugu, itzulpenek ere horrela egin duten neurrian. Beste batzuetan, autore jarri beharrean, itzulpenek zehazten duten iturria ipini dugu, hau da, jatorrizko obraren izenburua: *Zhan guoce* eta *Yanzi chungjiuren* kasuan, adibidez. Halakoak letra etzanez markatu ditugu. Azkenik, itzultzaileen testuetan aurkitu ditugun autoreen izen gutxi batzuk ezin izan ditugu identifikatu. Galdera-marka jarri diegu halakoei izenaren ondoren, eta itzultzaileen testuetan ageri diren grafia berarekin utzi ditugu.

Itxaro Borda	poesia	Laozi	K.a. V-IV	aldizkaria: <i>Maiatz</i>	1985
		Tao Yuanming (陶淵明)	365-427		
		Li Bai	701-762		
		Qian Qi (钱起)	722-780		
		Bai Juyi	772-846		
		Bian Zhilin (卞之琳)	1910-2000		
		Gu Cheng (顾城)	1956-1993		
		Ai Qing (艾青)	1910-1996		
		Bei Dao (北島)	1949-		
		Zhou Liangpei (周良沛)	1933-		
		Lei Shuyan (雷抒雁)	1942-2013		
		Jiang He (江河)	1949-		
		Yan Li (严力)	1954-		
		Xiao Fan (晓凡)	1937-		
		Zhou Jiadi (周嘉堤)	1947-		
		Yan Ming (?)			
		Gu Gong (顾工)			
		Shu Ting (舒婷)	1952-		
		He Jinming (何景明)	1483-1521		
		Lin Hengtai (林亨泰)	1924-		
Luo Gengye (骆耕野)	1951-				
Marcel Etchehandy	ipuinak	ANONIMOAK	—————	aldizkaria: <i>Maiatz</i>	1985
Maidet Etxaide	ipuina	ANONIMOAK	XIV-XV	liburua: <i>Larruzko</i>	1986
Karlos Santisteban	ipuinak	Pu Songling	1640-1715	bilduma: <i>Itsasoko</i>	1987
Josu Zabaleta	ipuinak	ANONIMOAK	—	aldizkaria: <i>Egan</i>	1987
		ANONIMOAK	—	bilduma: <i>Txina</i>	1989
Xabier Kaltzakorta	ipuinak	Pu Songling	1640-1715	bilduma: <i>Pu Songlingen</i> antologia: <i>Ekialdeko</i>	1988 1988
		Huangdi (黄帝)			
		Zhou Mu Wang (周穆王)	K.a. X		
		<i>Tang wen</i> (唐文)	Tang dinastiako prosa-bilduma (618-907), 1814an bildua		
		<i>Shuofu</i> (说郛)	XIII-XVII		
		Liu An (劉安)	K.a. II		
		Han Feizi (韩非子)	K.a. III		
		<i>Zhan Guo ce</i> (战国策)	K.a. III-I		
		Yuan Mei (袁枚)	1716-1797		
		Txiang-Ying-K'e (?)			
		Han-tan Shun (?)			
		Liezi (列子)	III-IV		
		Lo Txo (?)			
		Tao Zongyi (陶宗仪)	1316-1403		
		Huan Txun-Tsai (?)			
		Gan Bao (干宝)	280-350?		
		Ji Yun (纪昀)	1724-1805		
		Su Shin (?)			
		Lang Ying (朗瑛)	1487-1566		
		Zhuangzi	K.a. IV		
Yang Yu (杨瑀)	1285-1361				
Txang Shin-Han (?)					
<i>Yanzi chunqiu</i> (晏子春秋)	K.a. V-III				
Sima Qian (司马迁)	K.a. II-I				
Zhu Yunming (祝允明)	1460-1527				
Cao Xueqing (曹雪芹)	1715-1764				

		Wu Cheng'en (吴承恩)	1506-1582		
		Hsü Fang (?)			
		Wan Yu-Ting (?)			
Xabier Etxaniz	ipuinak	ANONIMOAK	—	bilduma: <i>Berdez</i>	1988
		ANONIMOAK	—	bilduma: <i>Zazpi</i>	1992
Xabier Izaga	pentsamendua	Sunzi	K.a. V-IV	liburua: <i>Gerraren</i>	1995
Rafa Egiguren	poesia	Li Bai	701-762	antologia: <i>Mandarin</i>	2003
		Wang Wei	701-761		
		Du Fu	712-770		
		Li Bai	701-762	antologia: <i>Gauza</i>	2011
		Wang Wei	701-761		
		Du Fu	712-770		
		Bai Juyi	772-846		
		Zhuangzi	K.a. IV		
Galvany & Otxoteko	poesia	Li Bai	701-762	bilduma: <i>Urrutira</i>	2005
Luigi Anselmi	poesia	Li Bai	701-762	antologia: <i>Bertzerenak</i>	2006
		Du Fu	712-770		
		Liu Kezhuang	1187-1269		
Arregi & Lasarte	pentsamendua	Laozi	K.a. V-IV	liburua: <i>Dao de jing</i>	2007
Patxi Ezkiaga	pentsamendua	Konfuzio	K.a. VI-V	liburua: <i>Analektak</i>	2008

Zerrenda guztiz oro-hartzailea ez dela badakigun arren (egongo baitira guk aztertu ez ditugun beste aldizkari edo itzulpen-antologia batzuetan txinatar literaturaren beste ale batzuk), uste dugu nahikoa izan daitekeela orain arte txineratik zer euskaratu den deskribatzeko eta txinatar literaturaren itzulpenek euskal literatur sistemaren barruan izan duten harrerari eta balizko eboluzioari buruzko hausnarketa bat egiteko. Hurrengo ataletan deskribatuko ditugu zerrenda horretako itzulpenen ezaugarriak.

## 2.1. Literatura klasikoa nagusi

Orain arte euskaratutako txinatar literatur lanei erreparatzen badiegu, aise ohartuko gara Txinako literatura klasikoa gailentzen dela. Poesiari dagokionez, behin eta berriro ageri zaizkigu Txinako literaturaren urrezko arotzat jotzen den Tang dinastiako (618-907) poeta gorenak, bereziki Li Bai, Wang Wei eta Du Fu. Aipatu ditugun itzultzaileen artean Itxaro Bordak baizik ez du egin hainbat poeta garaikideren lanak euskaratzeko eta *Maiatz* aldizkarian euskal irakurleei eskaintzeko ahalegina<sup>8</sup>. Santi Onaindiak itzulitako Mao Zedongen olerkiek osa lezake beste salbuespen bat, XX. mendean idatzitako poemak baitira, baina kontutan

8. Interesgarria da, zentzu horretan, Itxaro Bordak itzulitako poema horien hitzaurre gisako sarreran (zeina Shu Liyen eta Itxaro Bordak sinatua ageri baita) txinatar literatura garaikideari buruz esaten dena: «[...] guk gaur eskaintzen dizkizuegun poeta gehienak 1950aren inguruan jaiok dira. Manera hortan, gaiak eta idatz ohiturak aldatu dira, Txinako poesia ez da menturaz mandarinen arropen menpean izkribatzen zen hura. BAI JUYI eta LI PO beren mendi urdinekin, beren loreekin eta itsasoekin aspalditik ahantziak dira. Txinako poeta gazteek bizitzen duten ingurumen bortitza deskribatzen digute: pobrezia, analfabetismoa, sortzen diren nesken hiltzeak, eta oroz gainetik iraultza kulturala (1965-66)» (Borda, 1985: 13).

hartzekoa da Mao Zedongen poesiak forma eta hizkuntzari dagokionez tradizio klasikoari jarraitzen diola.

Ipuinei dagokienez, berriz, Pu Songling XVII. mendeko idazle txinatarra da nagusi, bi liburu oso argitaratu baitira haren ipuinen itzulpenekin, lehena Karlos Santistebanen eskutik (lau ipuin biltzen ditu *Itsasoko mamuak* ipuin-bilduman), eta bigarrena Xabier Kaltzakortak euskaraturik *Pu Songlingen ipuinak* izenburupean<sup>9</sup>. *Ekialdeko ipuin miresgarriak* bilduman, Xabier Kaltzakortak beste hainbat ipuin txinatar itzuli zituen: garai desberdinetakoak izan arren, antzinako istorioak dira nagusi; ez da ageri XX. mendeko narraziorik. Gainerako ipuin itzuliak, Etchehandyk, Etxaidek, Etxanizek eta Zabaletak itzultitakoak, anonimoak dira, eta, beraz, zaila da zehazki noizkoak diren jakitea, baina gehienak herri-ipuin gisa aurkezten direnez, pentsatzekoa da ipuin klasikoak direla gehienak, «ahotik belarrira urte eta mendeetan zehar kontatu diren» ipuinak (Etxaniz, 1988: 9).

Azkenik, euskaratu diren txinatar pentsamendu-testu gehienak (*Analektak*, *Dao de jing* eta *Gerraren antzea*) klasikoak dira, K.a. IV. mendea baino lehenagokoak. Salbuespena Mao Zedong dugu berriro, baina, esan bezala, Krutwigek itzultitako lau liburuak politikaren alorrean kokatu beharreko testuak dira, literaturarenean baino gehiago.

## 2.2. Pentsamendua, poesia eta ipuinak

Txineratik euskaraturikoaren generoari begiratzen badiogu, euskarara itzuli diren txinatar literatur testu guztiak pentsamenduaren historiakoak, poemak edo ipuinak dira. Ipuinak ere, gainera, ipuin miragarri edota alegia moduko istorioetara mugatzen dira. Pu Songlingen narrazioak, esaterako, anekdota oso laburrak edo ipuin luzeagoak dira, errealitatearen eta fikzioaren arteko mugarekin jolasten dute, eta tonu satiriko eta objektiboz kontaktzen dituzte mamu eta gertakari misteriosuz jositako istorioak. Halaxe dio, esaterako, Karlos Santistebanek Pu Songlingi buruz, *Itsasoko mamuak* hitzaurrean:

[...] inperioko lurralde zabaletan zehar idatziz nahiz ahoz zebiltzan tradizio eta ixtorio guztiak biltzeari ekin zion, buruz ikasi ondoren errealitatea, sinboloak, mitologia eta historia fantastikoak nahastuz bikain birsortzeko (Santisteban, 1987: 5).

Antzeko baieztapen bat tartekatzen du Xabier Kaltzakortak ere *Pu Songlingen ipuinak* liburuari egiten dion hitzaurre luzean: «Ipuinak bere erara moldatzen ekian, aspaldiko tradiziotik etorritako gaia hartu eta esku bereziz oratzen eban ipuina» (Kaltzakorta, 1988a: 12). Bai ipuin-bilduma horretan, baita urtebete geroago argitaratu zuen *Ekialdeko ipuin miresgarriak* liburuan ere, Xabier Kaltzakortak euskal mitologia eta tradizioekin alderatzen ditu Txinako eta Ekialde Urruneko ipuinak, eta badirudi gurean antzekotasun handiena dutenak hautatu dituela bilduma horietan

---

9. Liburuan guztira 51 ipuin dira, baina itzultzaileak hitzaurrean aitortzen duenez, ipuin guztiak ez dira Pu Songlingenak: «Bilduma honetako ipuin gehienak lehen aitatu dogun Pu Songling-enak dira, bera da hain zuzen Txinako ipuin idazlerik haundiena» (Kaltzakorta, 1988a: 11). «Taoismoak eta Budismoak kutsatu bageko ipuin sortatxo bat ere ekarri gura eta Ise-ko ipuin sailtxo bat jarri dot liburuan. Hamargarren mendean idatziak dagoz eta ipuinetako heroea Ariwara wo Narihira da. Maitasunaren gorabeherak azaltzen jakuz, menturak eta desmenturak. "Ise-ko Ipuinak" liburutik atereak dagoz» (Kaltzakorta, 1988a: 11). Txinakoekin batera, Japoniako ipuinak ere euskaratu zituen, hortaz.



txertatzeko. *Pu Songlingen ipuinak* hitzaurrean hainbat euskal ipuingile eta ipuin-biltzaile aipatzen ditu (Mirande, Sarrionandia, Satrustegi Zubeldia, Azkue, Julian Alustiza, Barandiaran...), eta, aipatu ez ezik, haiek kontatu edo bildutako ipuin batzuk ere osorik txertatzen ditu (Pello Errotaren alaba Mikela Elizegik bere aitaren sineskeria bati buruz kontatutako istorioa, Txirritaren ilobak kontatutako «Gaizkiñak» ipuina, Mogelen *Peru Abarca* liburuan kontatzen den hontzari buruzko istorio bat...).

Etxanizek ere «gure» herri-ipuinekin alderatzen ditu Txinako ipuinak *Berdez jantzitako neska* liburuaren hitzaurrean, nahiz eta beste ipuin batzuk guretzat harrigarriak suertatuko direla azpimarratzen duen:

Gure «*Marizikin*»-en antza izan zezakeen «*Bi ahizpak*» izeneko ipuinak, edo gure herriko ipuina izan zitekeen «*Ma Zi nekazari argia*» izenekoaren zatirik nagusia, baina horien alboan «*Tigre ausarta*», «*Berraurkitzea*» edo liburu honi izenburua ematen dion «*Berdez jantzitako neska*» ditugu (Etxaniz, 1988: 9-10).

Josu Zabaletaren *Txina zaharreko kontu zaharrak* liburuak ere antzeko ipuinak biltzen ditu (horietariko bat<sup>10</sup>, gainera, Etxanizek ere jasotzen du bere itzulpenen artean, bertsio guztiz desberdin batean, baina).

Kasu berezia da Mainer Etxaideren *Larruzko botaren ikerketa* liburuarena, hor euskaraturiko ipuina *histoire policière* gisa argitaratu baitzen frantsesez (cf. *infra* 2.4.2 atalean); baina, Txinako XIV.-XV. mendeetako ipuin-multzo baten eta genero poliziakoaren arteko antzekotasunak erakusteko ahalegina gorabehera, izatez ipuin klasikoa da.

Ildo berezi bat osatzen dute, bestalde, pentsamenduaren historiako testuek (*Analektak*, *Dao de jing* eta *Gerraren antzea*); izan ere, nahiz eta gure ikuspuntutik literaturaren mugetan egon, Txinako literaturan garrantzi handia izan dute.

Esanguratsua da, hortaz, orain arte txinerazko eleberririk edota antzezlanik ez izatea euskaraturik. Ming eta Qing dinastiako eleberri famatuak edo Yuan dinastiako antzezlanak, esate baterako, ez dira oraindik euskaratu.

### 2.3. Itzultzaileen ekimenezko argitalpenak

Aipatu ditugun lanen beste ezaugarri bat litzateke itzultzailearen ekimenez argitaratutako lanen nagusitasuna.

Konfuzioren eta Laoziren lanen itzulpena da salbuespen nagusia, bi horiek Deustuko Unibertsitateko Teologia Fakultatearen eta Ibaizabal argitaletxearen «Erlijioen jakinduria» bilduman argitaratu baitziren, Koranarekin, Budaren Hitzekin edo Vimalakirtiren Sutrarekin batera, besteak beste. Kasu honetan, jakina, erlijio handietako idazki fundatzaileak euskal irakurleari eskura jartzea izan da helburua, eta lanen literatur balioa ez da izan bildumarentzat esanguratsua.

---

10. Zabaletaren «Ma Liang-en isipu harrigarria» (Zabaleta, 1989: 12-31) «Pintzel harrigarria» da Etxanizen bertsioan (Etxaniz, 1992: 11-20).

Baina gainerako kasuetan, oro har, idazle-itzultzaileak gustura irakurri dituen poema edo ipuin batzuk itzultzea erabaki du, eta aldizkari, liburu, itzulpen-antologia edo bestelakoetan argitaratzea erabaki: «[...] han-hemenka bilduriko bertzeren gauzak. Bertzerenak. Halabeharrak, jabearen poltsa urriak [...] eta gustu badaezpadakoak mugatu dute hautua ezin bertzez» (Anselmi, 2006: 10); «Nik ipuinak itzuli ditudanean ipuinak eurak emon deusten atseginagaitik egin dot ez ostera jakitun nazalako gai honetan [...]» (Kaltzakorta, 1988a: 7). Hots, aipatutako lan horiek ez dira, oro har, itzulpen- edo argitalpen-politika baten fruitu, itzultzailearen gustu pertsonalaren ondorio baizik. Fenomeno hori ez da batere arraroa euskarazkoa bezalako literatur sistema txiki eta berantiar batean, bereziki txinatarra bezain urrun gelditzen zaigun literatura baten itzulpenari dagokionez, baina azpimarratzeko moduko ezaugarria iruditzen zaigu, guk itzuli berri dugun Mo Yanen *Hori da umorea, maisu!* liburua argitalexte eta erakunde batzuek bultzatutako eta finantzatutako itzulpena baita, horrek dakartzan ondorio guztiek.

Aurrekoarekin lotuta, esan beharra dago txinatar literatura euskaratu duten itzultzaile gehien-gehienak euskal idazleak direla ezer baino lehen (poesia ia denek landu dute, eta prosan ere arituak dira gehienak), eta itzulpena beren sorkuntzarako tresna gisa darabiltela, beren idazletzaren parte bezala. Idazle horietako askok itzulpengintzan ere eskarmentu handia daukaten arren, gehienek ez daukate itzulpengintzaren alorreko prestakuntza profesionalik eta ez dira txinatar literaturan adituak. Aipatu beharrekoak dira, salbuespen modura, Albert Galvanyk eta Pello Otxotekok elkarlanean itzuliriko *Urrutira bidalia* eta Rafa Egigurenen *Mandarin Dotore* (2003) eta *Gauza guztiak* (2011). Lehenengoaren kasuan, bi autoreak dira itzultzaileak, eta Albert Galvany, gainera, aditua da txinatar literaturan eta pentsamenduan; bikotean elkarren osagarri dira, Galvanyk jatorrizko testuak ondo ezagutzen baititu eta Otxotekoren eremua gehiago baita xedehizkuntzako. Rafa Egiguren ere luzez aritua da itzulpengintzan, eta ezagutza sakona du txinatar hizkuntza eta literaturaren inguruan. Baina, kasu hauetan ere, hala Otxoteko nola Egiguren itzultzaile-lanagatik bezain ezagun dira beren sorkuntzako lanengatik.

## 2.4. Zeharbidezko itzulpenak nagusi

Artikuluaren hasieran aipatu dugun bezala, txineratik euskarara ekarritako literatur lan gehienak zubi-hizkuntzaren bat erabilia egin dira. Itzultzaile nahiz argitaratzaileek ez diote garrantzi handiegirik ematen itzulpenen zuzenekotasun nahiz zeharbidezkotasunari, eta, adierazi ere, ez dute ia inoiz berariaz adierazten testua zein hizkuntzatatik itzuli den itzulpenen hitzaurre, azal, kontrazal nahiz gainerako paratestuetan. Itzulpenerako zubi-hizkuntzarik erabili den eta, erabili bada, zein hizkuntza baliatu den jakiteak, ordea, oso informazio baliagarria eskain dezake literatura batek beste literatur sistema batean izan duen harrera aztertzeko edota literatur sistema desberdinen arteko harremanak ikertzeko. Izan ere, sistema literario batek garai jakin batean izan dituen zeharbidezko itzulpenak nola eta zein hizkuntzatatik egin diren ikertzeak literatura bakoitzaren estatusaren eta literaturen arteko harremanen inguruko informazio baliotsua eskain dezake (Marin-Lacarta, 2012a).

Hori dela-eta, interesgarria deritzogu hemen zeharbidezko itzulpenei buruzko parentesi teoriko bat irekitzeari, txinatar literatura zein hizkuntzatatik euskaratu den aztertzen hasi baino lehen.

#### 2.4.1. Zeharbidezko itzulpenen inguruan

Zeharbidezko itzulpenak edozein literaturatan aurki daitezke. Testuak itzultzeko zubi-hizkuntzak historiako garai desberdinetan erabili izan dira munduko txoko guztietan. Eta, halere, fenomeno honi ez zaio itzulpengintzaren alorrean merezi lukeen adinako arretarik eskaini. Gideon Toury itzulpen-aditu israeldarrak 1976an emandako hitzaldi batean zeharbidezko itzulpenak aztertzearen beharra aldarrikatu bazuen ere (Toury, 1976) eta gerora argitaratutako lanetan gaia sakonagotik ikertu badu ere (Toury, 1988, 1995), auzi honen inguruan egin diren ikerketak oso bakanak eta barreiatuak izan dira orain arte, eta horren ondorio litzateke erabili beharreko terminologiari buruzko adostasun eza ere: *relay translation*, *chain translation*, *double translation*, *secondary translation*, *Weiterübersetzung*, *Übersetzung aus zweiter Hand* eta *mediated translation* erabili ohi dira, besteak beste, zeharbidezko itzulpenak izendatzeko (Ringmar, 2007: 2)<sup>11</sup>. Guk orain arteko lanetan *zeharkako itzulpena*<sup>12</sup> (Jaka, 2012a, 2012b) edo *traducción indirecta* (Marin-Lacarta, 2012a, 2012b) terminoak erabili izan baditugu ere, egokiagoa iruditu zaigu Karlos Zabala itzultzaileak Ivo Andritxen *Zubi bat Drinaren gainean* itzulpenari buruz argitaratutako artikulu batean proposatzen duen *zeharbidezko itzulpena*:

Nola deitu ere ez dakigu garbi. Zeharkako itzulpena, *traducción indirecta*, deitzen zaio maiz, baina nahasgarria da, itzulpen-teoriaren barruan Vinay-Darbelnetek erabili zutelako «hitzez hitzekoa» ez dena izendatzeko. Bigarren eskukoa ere deitu izan zaio, eta kate bidezkoa, «sekundarioa», bitarteko hizkuntza baten bidezkoa, zubi-hizkuntzaren bidezkoa, *relay translation* (errelebozkoa edo)... Nik «zeharbidezkoa» aukeratu dut hitzaldi honi izenburua jartzean, ustez, behintzat, ez delako beste ezerekin nahasten. Hala edo hola deitu, zer den garbi dago: originaletik zuzenean egiten ez diren itzulpenak (Zabala, 2013: 126).

*Zeharbidezko itzulpen* deituko diegu, beraz, jatorrizkotik zuzenean egiten ez diren itzulpenei, eta *zubi-hizkuntza* eta *zubi-testu*, berriz, itzulpenaren oinarri izan diren hizkuntzari eta testuari, Martin Ringmarrek proposatzen dituen *mediating language (ML)* eta *mediating text (MT)* terminoetan oinarrituta (Ringmar, 2007: 3). Definizioari dagokionez, egokia deritzogu Harald Kittel eta Armin Paul Frank ikertzaileek proposatzen dutenari:

[A]ny translation based on a source (or sources) which is itself a translation into a language other than the language of the original, or the target language (Kittel eta Frank, 1991: 3).

---

11. Zeharbidezko itzulpenei buruzko terminologiaren eta definizioaren inguruko nahasmena xeheki aztertzen da Maialen Marinen doktorego-tesian (Marin-Lacarta, 2012a: 80-88).

12. Beste zenbait euskal ikertzailek ere «zeharkako itzulpena» terminoa erabili izan dute jatorrizkotik zuzenean egiten ez diren itzulpenak izendatzeko; besteak beste, Manu López Gasenik (López Gaseni 2000: 9), Elizabete Manterolak (2012: 90-94) eta Naroa Zubillagak (2013: 74 eta *passim*).

Zeharbidezko itzulpenen auzia hain gutxi aztertu izanaren arrazoietakoa bat, Ringmarren iritziz, fenomeno horren inguruko ikuspegi negatiboa da (Ringmar, 2007). Gaia aztertu duten teorialari gehienek lanetan nabarmena da zeharbidezko itzulpenekiko mesfidantza: badirudi oso urrutiko hizkuntza eta literaturen arteko itzulpenetan baizik ez dela onargarritzat edo are beharrezkotzat jotzen (ikus, adibidez, Radó, 1975 edo Xu Jianzhong, 2003); gainerako kasuetan, teorialari askok arbuiatu egiten du prozedura hori, zuzeneko itzulpen batean gertatzen diren galerei bigarren itzulpen horrenak gehitzen zaizkiola argudiatuta. Hain zuzen ere, literatur sistema bateko partaideek zeharbidezko itzulpenen inguruan duten iritziak (tolerantziak ala intolerantziak) eragin nabarmena izan ohi du itzulpen horiek aurkezteko moduan: ikuspegi negatiboak zeharbidezko itzulpenak kamuflatzeko joera ekarri ohi du sarri berekin, hots, itzulpenean erabilitako zubi-hizkuntzari edo zubi-testuari buruzko inolako informaziorik ez eskaintzea, itzulpena zuzenean jatorrizkotik egin delako itxura emanez (Ringmar, 2007).

Zeharbidezko itzulpenak aztertu dituzten teorialariek askotariko faktoreak aipatu izan dituzte itzulpenak jatorrizko hizkuntzatik zuzenean ez egiteko arrazoiak azaltzeko. Ringmarrek honako hauek zerrendatzen ditu: bi literatur sistemaren arteko urruntasun linguistiko edota geografikoa, jatorrizkoa topatzeko zailtasunak, jatorrizko hizkuntzaren ezagutza eza, gastuak murriztu nahia (diru eta denbora gutxiago eskatzen baitu maiz zubi-hizkuntzan eskarmentua duen itzultzaile bat kontratatzeak lana jatorrizko hizkuntzan hala moduzko esperientzia duen itzultzaile bati emateak baino) eta arrazoi politiko edo erlijiosoengatik xede-testuaren edukia kontrolatu nahia (Ringmar, 2007). Gideon Touryk beste arrazoi bat aipatzen du, baita horren inguruko hainbat adibide eskaintzen ere: askotan, zubi-hizkuntzak eta zubi-literaturak xede-sisteman duten prestigioak baldintzatzen du itzulpeneko bitarteko gisa erabiltzen diren zubi-testuen hautaketa, eta horrela erakusten du hebreerazko literaturaren inguruan egindako azterketan: garai historiko bakoitzean zubi-hizkuntza edo zubi-sistema desberdin bat nagusitu da hebreerara egindako itzulpenetan: berpizkunde-garaian alemana, gerora errusiarra eta azken aldiak ingelesa (Toury, 1995).

Guregandik gertuago dagoen adibide bat jartzearen eta aztergai dugun gaiarekin lotura egite aldera, txinatar literaturak Espainiako literatur sistemari izan duen harrera aipa dezakegu, zeina guztiz baldintzatu baitute literatur sistema anglofonoak eta frankofonoak, ingelesa eta frantsesa zubi-hizkuntza gisa erabiliz egin baitira txinatar literatura moderno eta garaikideko testuen itzulpen asko eta asko. Baina bitartekaritza horren eragina ez da soilik itzulitako testuetan nabaritzen, baizik eta baita espainiar argitaletxe eta literatur kritikariek txinatar literatura moderno eta garaikidearen inguruan osatu duten diskurtsoan ere (Marin-Lacarta, 2012a).

Ikus dezagun orain zein hizkuntza eta literatur sistemaren bitartekaritza bereganatu dituzten euskal idazle-itzultzaileek txinatar literaturaren zipiritzinak.

#### *2.4.2. Txineratik euskaratutako lanen zuzenekotasun edo zeharbidezkotetasuna*

Aztergai ditugun euskal itzulpenei dagokienez, oro har, ez da batere erraza jakitea testuak txineratik zuzenean ala zubi-hizkuntzaren bat erabilia itzuli ote diren. Izan ere, paratestuek ez dute kasurik gehienetan inolako informaziorik

eskaintzen itzulpenen zuzenokotasun nahiz zeharbidezkototasunaren inguruan. Jarraian, banaka-banaka aztertuko ditugu txinatar literatur testuen euskal itzulpen horiek:

**Santi Onaindia:** *Olertin* argitaratzen dituen Mao Zedongen lau olerkien itzulpenetan ez du zehazten zubi-hizkuntzarik erabili ote duen; halaber, ez dago jatorrizko testuei buruzko inolako informaziorik. Gauza ezaguna da Santi Onaindiak ondo zekiela hainbat hizkuntza, baina ez dugu inon irakurri txinera zekienik.

**Federico Krutwig:** Hari buruzko biografia eta testu guztietan aipatzen da hizkuntzetarako zaletasun handia zuela eta hamabost hizkuntzatik gora ikasi zituela, horien artean txinera. Hala eta guztiz ere, zalantzarik gabe esan daiteke Mao Zedongen lau liburu horiek zeharbidezko itzulpenak direla, gaztelaniatik itzuliak. Azterketa bizkor batean ikus daitekeenez, Pekineko «Ediciones en lenguas extranjeras» argitaletxeak gaztelaniazko «Obras escogidas de Mao Tse-tung» bildumako liburukietan argitaraturiko itzulpenak izan ziren Krutwigen lehenengo hiru liburueta-ko zubi-testuak: *Contra el liberalismo* (II, 1968), *Sobre la práctica* (I, 1968) eta *Sobre la contradicción* (I, 1968). Krutwigen laugarren itzulpenaren zubi-testua ere argitaletxe horrek argitaratu zuen, *Citas del presidente Mao Tse-Tung* (1970) izenarekin<sup>13</sup>.

**Joseba Sarrionandia:** Itzultzaileak ez du informaziorik eskaintzen *Idatz & Mintz* aldizkarian argitaratutako Li Bairen 12 poematarako erabilitako testuen inguruan. Dena den, nahiko argi dago zeharbidezko itzulpenak direla, ia ziur Marcela de Juanen *Segunda antología de la poesía china* (1962) liburuko gaztelaniazko itzulpenak zubi-testutzat erabiliz eginak (Jaka, 2012a). *Izkiriaturik aurkitu ditudan ene poemak* (1985) liburuan argitaratutako Du Fu txinatarraren 6 poemak, aldiz, Octavio Paz mexikarraren *Versiones y diversiones* (1973) liburutik itzuliak direla aitortzen du Sarrionandiak. Liburu berean ageri diren 4 poema txinatar anonimoei buruz ez du inolako informaziorik ematen, ezta *Hezurrezko xirulak* (1991) liburuan argitaratutako Wang Weiren poemaren inguruan eta *Alkohola poemak* (1984) antologian argitaratutako Du Furen eta Li Bairen poemaren inguruan ere. Sarrionandiak bost hizkuntza zekizkiela aitortu zuen 2002an Hasier Etxeberriari eskainitako elkarrizketa batean: «Ba euskaraz, espainolez, portugesez, ingelesez eta frantsesez irakurtzen dut apur bat behintzat» (Sarrionandia, 2002: 305). Txinerarik jakin ezean, beraz, nahitaez erabili behar izan zituen zubi-testuak txineratiko itzulpenak egiteko.

**Itxaro Borda:** Ez du adierazten *Maiatz* aldizkarirako itzultitako poemak zein hizkuntzatatik itzuli dituen, ezta jatorrizkoei buruzko bestelako informaziorik ematen ere. Dena den, erraz ondoriozta dezakegu zeharbidezko itzulpenak direla, ziurrenik frantsesetik eginak. Itxaro Bordak berak itzulpenari buruz idatzitako «Traditore ala?» artikuluan aitortzen duenez, *Maiatz* aldizkarian argitaratzen zituen itzulpen gehienak frantsesetik euskaratzen zituen: «Ardurenean frantsesetik euskaralat egin ditut. [...] Halaz, nihaurek kanpoko aldizkarietan edo egunkarietan “deskubritu” arau, *Maiatz*-en irakurleei “deskubriarazten” nituen. [...] Oinarrizko testuak *Europe* hiruhilabetekari frantsesean atzematen nituen» (Borda, 2001: 35-36).

---

13. Interneten osorik irakur daitezke gaztelaniazko testu horiek: <http://www.marxists.org/espanol/mao/indice.htm>.

**Marcel Etchehandy:** Itxaro Bordaren itzulpenek bezala, Etchehandyrenek ere ez dakarte jatorrizko testuen inguruko informaziorik. Baliteke hauek ere itzulpen frantses batean oinarritutako itzulpenak izatea.

**Maidier Etxaide:** Liburuan ez dago itzulpenerako erabili den jatorrizkoari buruzko informaziorik (ez dago inolako paratesturik, argitalpenari dagozkion kredituez gain), baina esanguratsua da hain zuzen euskarazkoa argitaratu zen urte horretan bertan (1986an) izenburu berebereko ipuin bat argitaratu zela gaztelaniaz, «La investigación de la bota de cuero» hain zuzen, *Las siete víctimas de un pájaro: cuentos policíacos chinos* ipuin-bilduman (Fondo de Cultura Económica argitaletxea, Mexiko, 1986). Liburu hori frantsesetik gaztelaniaratu zuen Aurelio Garzón del Camino itzultzaileak, eta frantsesezkoa, *Sept victimes pour un oiseau et autres histoires policières* izenburuarekin argitaratua, André Levy sinologoak itzuli zuen txineratik (Flammarion argitaletxea, Paris, 1981); euskaraz liburu gisa argitaratuko zen ipuinak «Investigation de la botte de cuir» izenburua zuen frantsesezko itzulpenean.

**Karlos Santisteban:** *Itsasoko mamuak* (1987) liburuan ez dator inolako informaziorik ez jatorrizko testuen inguruan, ezta balizko zubi-testuen inguruan ere, baina, itzultzaileak berak jakinarazi digunez, gaztelaniazko hainbat testutan oinarrituta egin zituen itzulpen hauek.

**Josu Zabaleta:** *Egan* aldizkariko ipuinetan eta *Txina zaharreko kontu zaharrak* (1989) liburuan ez da zehazten itzulpenak zein testutatik eginak diren. Itzultzaileari galdetuta jakin ahal izan dugu, ordea, *Egan* aldizkarian argitaratutako ipuinak gaztelaniazko liburu batetik itzuli zituela, eta *Txina zaharreko kontu zaharrak* liburukoak, aldiz, gaztelaniazko, frantsesezko eta ingelesezko zubi-testuetan oinarrituta.

**Xabier Kaltzakorta:** *Pu Songlingen ipuinak* (1988) eta *Ekialdeko ipuin miresgarriak* (1988) liburuetan ez da inolako erreferentziarik aurkitzen ez jatorrizko testuei dagokienez, ezta zubi-testu gisa erabilitako itzulpenei buruz ere. Hogei urte geroagoko artikulu batean, ordea, argi adierazten du zein izan den zubi-hizkuntza: «Ixtorio hauetatik zenbait euskaratu nituen, gaztetan. Egia esan behar badut, gaztelaniazkoak hartu nituen iturritzat, Borgesen ediziotik zein gainerakoetatik hartu nituen. Borgesek berak ere ingelesetik hartu zituen» (Kaltzakorta, 2008: 77)<sup>14</sup>.

**Xabier Etxaniz:** *Berdez jantzitako neska* (1988) eta *Zazpi ahizpak* (1992) ipuin-liburuetan ez da jatorrizkoei edota zubi-testuei buruzko informazio zehatzik ageri, baina lehen liburua hitzaurrean, itzultzaileak dio bilduma egiteko «Txinan bertan nahiz mendebaldean argitaratutako zenbait liburu erabili dir[el]a, eta aukeratzeko orduan poetikotasuna, mezua eta edertasuna izan dir[el]a jarraitutako

---

14. Lerro batzuk gorago ematen ditu Borgesen itzulpenari buruzko argibideak: «J. L. Borgesek [...] mundu zabaleko hainbat idazle bikainen berri eman zizkigun. *Antología del cuento fantástico* liburuko azken aleek ekialdeko ipuin sorta polit bat osatzen dute. Liburu horretatikoez gainera, 1985ean, Siruelak argitara eman zuen Pu Songling-en *El invitado tigre* irakurri nuen. Sarrera Borgesena zen eta itzulpena Isabel Cardona eta Borgesena berarena. Itzulpena ingeles liburu batetik egin omen zen, Herbert Allen Giles-en 1880ko edizio batetik. [...] Gaztelaniaz, urte berean, 1985ean, edizio osoago bat atera zen: *Cuentos de Liao Zhai*, Alianza Editorial 3. Bigarren edizio honek ehun eta bost ipuin eta hiru elezahar zekartzan, askoz osoagoa, beraz» (Kaltzakorta, 2008: 76-77).

erizpideak» (Etxaniz, 1988: 10). Ez du zehazten zein diren erabilitako zubi-testu horiek, baina bilaketa txiki bat eginda eta ondoren itzultzaileak berak berretsita jakin dugu Pekineko Ediciones en Lenguas Extranjeras argitaletxeak argitaraturiko *Cuentos populares chinos* izeneko bilduma izan zela Etxanizen harrobi nagusia. Bilduma horretaz gain, beste hiru liburu ere erabili zituela jakinarazi digu Etxanizek: *Cuentos mágicos chinos* (Peradejordi, 1984), *Cuentos chinos* (Lopez eta Moraleda, 1985) eta *Los cuentos fantásticos chinos* (Moya, 1982)<sup>15</sup>. Hortaz, Etxanizen kasuan ere, gaztelania izan da zubi-hizkuntza.

**Xabier Izaga:** *Gerraren antzea* (1995) liburuak ez dakar jatorrizko testuari buruzko informaziorik, ezta balizko zubi-testuen inguruan ere, baina Izagak berak jakinarazi digu gaztelaniazko zubi-testu bat erabili zuela itzulpena egiteko.

**Rafa Eiguren:** *Mandarin Dotore* (2003) eta *Gauza guztiak* (2011) liburuetan txertatutako poemetan ez da adierazten zuzenean ala zeharbidez itzuliak diren, ezta itzulpenetako zein testu erabili diren ere. Baina Gaztelupeko Hotsak diskoeak lehen lanari buruz idatzitako aurkezpen-testuan argi adierazten da *Mandarin Dotore* laneko itzulpenak zuzenekoak direla, eta, beraz, pentsatzekoa da bigarren lanekoak ere halakoxeak direla: «Lehen proposamen honetan, Rafa Eigurenek Tang olerkiak txineratik euskarara zuzenean eginiko lehen itzulpena eskeintzen digu» (Gaztelupeko Hotsak, 2003).

**Albert Galvany eta Pello Otxoteko:** Bi itzultzaileek *Urrutira bidalia* (2006) liburuari egiten dioten hitzaurrean adierazten dute itzulpena egiteko eta testu txinatarra ezartzeko «hiru bolumenetako klasikoa bihurtu den Wang Qi-ren *Li Taibai quanji* (Beijing: Zhonghua shuju, 1977) liburua» erabili dutela (Galvany eta Otxoteko, 2005: 23). Zuzeneko itzulpena, beraz. Gorago esan dugun moduan, elkarren osa-garri lirateke Galvany eta Otxoteko, sorburu-hizkuntzaren eta xede-hizkuntzaren ezagutzan.

**Luigi Anselmi:** *Bertzerenak* (2006) liburuan argitaratu dituen lau poema txinatarrei dagokienez, bitan baizik ez du esaten zein testu baliatu duen zubi-testu gisa: «Bi adiskide» izenburupean ematen dituen Li Bairen eta Du Furen poemak kasuan, «Gustavo Pereiraren *El Peor de los Oficios* liburutik» itzuli zituela aitortzen du.

**Joxe Arregi eta Pilar Lasarte:** Honako hau diote bi itzultzaileek *Dao de jing* (2007) liburuaren hitzaurrean: «*Daoren* itzulpen gehienak bezala, euskarazko hau ere ez da zuzenean txineratik egin, baina bertsio asko izan ditugu aurrean (ik. horietako batzuen zerrenda liburuaren amaieran)» (Arregi eta Lasarte, 2007: 3). Zerrenda horretan gaztelaniazko, frantsesezko eta alemanezko itzulpenak ageri dira. Dena den, Pilar Lasartek gaztelaniazko bertsioak erabili zituela aitortzen du Elixabete Garmendiak berari buruz idatzitako liburuan: «Txineratik gaztelaniara zuzenean itzultitako hiru testu hartuta egin nuen»<sup>16</sup> (Pilar Lasarte *apud* Garmendia, 2010: 20-21).

---

15. Hiru liburu horiek zeharbidezko itzulpenak dira: lehena frantsesetik itzulia eta beste biak ingelesetik.

16. Merezi du pasarte osoa hona ekartzea: «Sekulako lana, zoratzeko modukoa. Askotan eskatu izan zidan Peter Yangek euskarazko itzulpena egiteko, baina ez zitzaidan bidezkoa iruditzen, txineraz jakin gabe eta taoismoa gehiago aztertu gabe, lan horretan sartzea. Baina Joxe Arregik deitu zidanean baiezkoa eman nion eta hitza ezin jan gero. Txineratik gaztelaniara zuzenean itzultitako hiru testu

**Patxi Ezkiaga:** Ez zuen *Analektak* (2008) lana zuzenean txineratik euskaratu, Joxe Arregik liburuari egiten dion hitzaurrean aitortzen duenez: «Tamalez, ezin izan dugu itzulpena txineratik zuzenean egin [...]. Txineratik ingelesera, frantse-sera edo gaztelaniara egindako hainbat bertsio baliatu ditu Ezkiagak» (Joxe Arregi *apud* Ezkiaga, 2008: 3). Liburuaren amaieran eskaintzen da zubi-testu horien zerrenda (guztira 10 liburu eta Interneteko 6 testu).

Zein ondorio atera ditzakegu, beraz, euskaratutako txinatar literaturaren zuzenokotasun edo zeharbidezokotasunari buruz?

Lehenik eta behin, itzulpen gehienak zeharbidezkoak direla. Berariaz hala aitortzen ez den kasuetan ere, pentsatzekoa da oro har itzultzaileek zubi-testuren bat erabili dutela, aipatutako itzultzaileen artean, dirudenez, Rafa Egigurenek eta Albert Galvanyk soilik baitakite txineraz. Gainerakoen kasuan, ia ziurra da zubi-testuren batean oinarrituta egindako itzulpenak direla.

Atera litekeen bigarren ondorio garbia hau da: zeharbidezko itzulpen gehienek kasuan (bai behintzat itzulpenik zaharretan), itzultzaileek ez dute aitortzen itzulpen horiek zubi-testu bat erabilia egin dituztenik. Zein arrazoi egon liteke joera horren atzean? Gorago aipatu dugunez, xede-sisteman zeharbidezko itzulpenek duten onargarritasun eskasaren erakusgarri izan liteke zeharbidezkotatuna ezkutatzeko tendentzia. Dena den, ez gara ausartzen joera hori aztergai dugun kasuan ere bete-betean gertatzen dela ondorioztatzera, euskaratutako txinatar literaturak behar besteko lagina eskaintzen ez digula iritzita. Gure susmoa da euskal itzulpengintzan zeharbidezko itzulpenak ez daudela oro har ondo ikusita<sup>17</sup>, eta zuzenekoak hobesteko joera dagoela, baina hala eta guztiz ere ez zaigu iruditzen hori izan litekeen zeharbidezkotatuna ez aipatzeko arrazoia. Esango genuke euskal itzultzaileek ez dutela beharrik ikusten txineraz ez dakitela espresuki aitortzeko (ageriko gauza dela pentsatuta), eta, gainera, gehienek xede-

---

hartuta egin nuen. Hiruren artean desberdintasunak ugari dira. Kontuan izanik orain dela 2.500 urte idatzia dela, bestelako kultura batean, ez da harrizkoa. Biak batzeko, taoismoa eta kristautasuna, asko jakin behar da eta esperientzia handia izan. Ni ez naiz inongo maistra, baina gauza horiek sakontzeak merezi du» (Pilar Lasarte *apud* Garmendia, 2010: 20-21).

17. Karlos Zabalak, gorago aipatu dugun artikuluan berean, antzeko oharpen bat egiten du zeharbidezko itzulpenen inguruan: «Itzulpen-ikasketetan arretarik ez zaio jarri, publikoan jeneralean iritzi negatiboa du, mesfidantza sortzen dute. Aurreiritzi guztiz negatiboak daude praktika horri buruz» (Zabala, 2013: 126-127). Iritzi negatibo horren aurka, Zabalak zeharbidezko itzulpenaren onurak azpimarratzen ditu, esanez hizkuntza arrotz askoren kasuan itzulpena egiteko modu bakarra zubi-hizkuntzak erabiltzea dela, eta gogoraraziz euskal literatura beste hizkuntzetara itzultzeko ia beti zubi-hizkuntzaren bat (edo bi, edo hiru) erabiltzen dela eta praktika horri inork ez diola mesfidantzaz begiratzen. Artikuluan erakusten du nola jardun zuen berak Ivo Andriksen *Zubi bat Drinaren gainean* obra itzultzeko: serbokroazierarik ez zekienez, hainbat zubi-hizkuntza erabili zituen (italiera, frantsesa, ingelesa eta gaztelania), eta baita, hainbat kasutan, Google zerbitzariaren itzultzaile automatikoa ere serbokroazierazko jatorrizkoa gaztelaniara itzuli eta jatorrizkoan zehazki zer jartzen zuen ikusteko. Eta hainbeste zubi-hizkuntza erabiltzeko eta are zenbait kasutan jatorrizkora jotzeko behar horrek, hain justu, itzultzaileak berak salatzen duen zeharbidezko itzulpenarekiko mesfidantza hori islatzen duela iruditzen zaigu, zubi-testuak askotan ez baitzaizkio nahikoak iruditzen. Azkenik, esan behar dugu ezen, Karlos Zabalak artikuluan horretan argi eta garbi adierazten duen arren zubi-hizkuntzez baliatu dela, *Zubi bat Drinaren gainean* itzulpenaren kredituetan ez dela itzulpenaren zeharkakotasunaren inguruko inolako aipamenik egiten. Serbokroazierazko jatorrizko izenburua besterik aipatzen ez denez, zuzeneko itzulpen bat dela pentsarazten du (Zabala, 2010). Euskal argitaletxeen zeharbidezko itzulpenak kamuflatzeko joeraren adibide izan liteke.



hizkuntza eta xede-kultura lehenetsiz egin dituztenez itzulpen horiek, ez zaiela beharrezkoa iruditu zein zubi-testu erabili dituzten zehaztea.

Hirugarren ondorioa zeharbidezko itzulpenetarako erabilitako zubi-testuen hizkuntzari buruzkoa litzateke. Itzultzaileek zein hizkuntzatatik itzuli duten jakitea kasu batzuetan zaila gertatzen den arren, uste dugu ez genukeela hanka sartuko baieztatuko bagenu gaztelania izan dela zubi-testu gehienen hizkuntza. Kasu gehienetan badakigu hala izan dela, itzultzaileek berek aitortuta, gorago ikusi dugun bezala. Gainerako testuei dagokienez ere, ez da zentzugabea pentsatzea euskal itzultzaile gehienek gaztelaniaren bidez irakurri izan dutela munduko literatura (bai behintzat 1980ko hamarkadan eta ziurrenik baita 1990ekoan ere, gaur egun bai baitirudi errazagoa dela beste hizkuntzetako zubi-testuak ere esku-ratzea: hor dugu, esaterako, Patxi Ezkiagaren 2008ko itzulpena, gaztelaniazkoek gain frantsesezko eta ingelesezko testuak erabiliz egina). Espainian argitaratutako itzulpenak ez ezik, idazle latinoamerikarren itzulpen-antologiak ere ugari irakurri izan dituzte euskal idazleek (Jaka, 2012b). Ezin ukatuzkoa da, beraz, gaztelaniazko literatur sistemek txinatar literaturaren euskaratze-prozesuan izan duten eragina. Aipatu ditugun itzultzaileen artean, ordea, badira bi zubi-hizkuntza gisa beste hizkuntza bat erabili ohi dutenak: Itxaro Borda eta Marcel Etchehandy. Iparraldeko idazleak izanik, frantsesa izan dute helduarora arte bederen munduko literatura irakurtzeko baliatu duten hizkuntza.

Azkenik, laugarren ondorio bat ematera ausartuko ginatke, ondotxo dakigun arren aztergai dugun lagina oso murrizta dela ondorio sendo eta biribilik ateratzeko. Edonola ere, txinatar literaturaren euskal itzulpenak kronologikoki aztertuta, esan liteke badagoela halako eboluzio bat zeharbidezko itzulpenetatik zuzenekoetara. Ia ziur esan liteke 2000ko hamarkadara arte ez dela zuzeneko itzulpenik egon, txineraz dakiten lehen itzultzaileak agertzen diren arte, hain zuzen. Eta eboluzio horrek, gure ustez, goraxeago hipotesi moduan plazaratu dugun ideia berretsiko luke, alegia, zeharbidezko itzulpenak ez direla oso ondo ikusiak, eta gero eta garrantzi handiagoa ematen zaiola jatorrizko hizkuntzatik zuzenean itzultzeari. Txineratiko itzulpenari ez dagozkion arren, Manu López Gasenik haur- eta gazte-literaturaren azterketan zeharbidezko itzulpenaren inguruan ateratako ondorioek ere hipotesi hori bera indartzen dutela iruditzen zaigu: López Gasenik erakusten duenez, 1970eko hamarkadan haur- eta gazte-literaturako euskal itzulpen gehienak gaztelania zubi-hizkuntza gisa erabilia egiten ziren, nahiz eta paratestuek oso gutxitan ematen zuten horren berri. Joera hori 1990eko hamarkadan hasi zen aldatzen, euskal itzultzaileak haur- eta gazte-literatura jatorrizko testuetatik zuzenean itzultzearen beharra sumatzen hasi zirenean (López Gaseni, 2000). Gaur egungo argitaletxeen eta erakundeen itzulpen-politika orokorraz hitz egin ahal izateko azterketa sakon eta xeheago bat beharko litzateke, ezbairik gabe, baina uste dugu itzulpen-politika edo itzulpen-arau nagusien erakusgarri diren zantzu batzuk egon badaudela. Esate baterako, munduko literatura euskaratzeko urtero egiten diren bi lehiaketa nagusiek, Jokin Zaitegi Sariketak eta Literatura Unibertsala bildumak, itzulpena jatorrizko hizkuntzatik egitea hobesten dute, eta, hala egin ezean, zein zubi-hizkuntza erabili diren zehazteko eskatzen. Guk egindako zerrendan ere argi ikusten da hasierako itzulpenetan ez bezala 2000ko hamarkadako argitalpenetan itzulpenen zuzenekotasuna edo zeharbidez-

kotasuna berariaz aipatzen dela, eta, zuzenean egin ez diren itzulpenen kasuan, hori justifikatzeko nolabaiteko beharra sentitzen dela<sup>18</sup>.

Badirudi, gainera, horixe dela zeharbidezko itzulpenen eboluzio normala. Touryk dioenez, zeharbidezko itzulpenek literatura baten harreraren aro bat osatzen dute, eta, denborarekin, literatura horrekiko interesa hazi ahala eta itzulpenaren nozioa eraldatu ahala, zuzeneko itzulpenak lehenesteko joera nagusitu ohi da:

It is no less clear that its tolerance of —and actual recourse to— this type of activity were bound to diminish as the concept of translation changed, and in direct proportion to a growing emphasis on the reconstruction of the source-text features (Toury, 1995: 133).

Dena den, esan beharra dago paradigma hori ez dela beti betetzen. Txinatar literaturak Espainian izan duen harreraren eboluzioak erakusten du, esate baterako, zeharbidezko itzulpenak ez direla gutxitzen denborarekin, alderantziz baizik. Aldi berean, baina, badirudi praktika horrekiko tolerantzia murriztu egiten dela, zeharbidezko itzulpenak kamuflatzeko joerak gora egiten baitu:

Observamos que esta evolución se contradice, ya que las indirectas, en vez de disminuir, han aumentado en la última etapa. Al mismo tiempo, han aumentado las traducciones indirectas camufladas, lo que refleja que, con la evolución de la noción de traducción, la tolerancia hacia esta práctica se reduce, aunque esto no impida que la traducción indirecta sea ampliamente practicada (Marín-Lacarta, 2012a: 281).

Txinatar literaturaren euskal itzulpenen kasuan, datu eta adibideen urritasunak ez digu uzten zeharbidezko itzulpenak kamuflatzeko joeraren inguruan ondorio orokorrik ateratzen, baina argi dago zuzenean jatorrizkotik itzultzea hobesten dela gero eta gehiago, eta zeharbidezko itzulpenen kasuan ez dela beti hala denik aitorzen.

## 2.5. Xede-hizkuntza eta xede-kultura helburu

Aurreko atalean ikusi dugu txineratik euskaratutako testu gehienak beste hizkuntza batean idatzitako zubi-testuen itzulpenak direla. Zubi-testu horiek guztiak identifikatzerik izan ez dugun arren, baliteke horietako asko ere zeharbidezko itzulpenak izatea, batez ere kontuan hartzen badugu euskal itzulpenetako zubi-

---

18. Adibide esanguratsua da Joxe Arregik Patxi Ezkiagak itzultitako *Analektak* liburuari egiten dion hitzaurrean esaten duena, barkamena eskatzen baitu itzulpena zuzenean txineratik ez egiteagatik, nahiz eta aurrerago azpimarratu zuzeneko itzulpena ez dela beti itzulpen hobearren berme: «Tamalez, ezin izan dugu itzulpena txineratik zuzenean egin, eta irakurleari ulermena eskatzen diogu, barkamenarekin batera. [...] Eta gaur bertan bada bat edo beste Konfuzioren testuak txineratik euskarara itzultzeko gai. Jo genuen atea, baina ahal duenak ez du beti ahal izaten. / Beraz, ahal duguna egin dugu. Eta inork ez du esango Patxi Ezkiaga ahalmen gutxiakoa denik. Olerkari handi, literaturan aditu, itzultzaile trebe, hizkuntza askoren jabe. Txineratik ingelesera, frantsesera edo gaztelaniara egindako hainbat bertsio baliatu ditu Ezkiagak (ik. zerrenda liburuaren amaieran). Eta emaitza bikaina nire juzkuan. Zorionak, Patxi! / Gainera, zera esan behar da: txineratik zuzenean itzultzea ez da itzulpen hobearren berme» (Joxe Arregi *apud* Ezkiaga, 2008: 3). Xabier Kaltzakortak ere, gorago aipatu dugun 2008ko artikuluan, «salagarri»tzat jotzen du zeharbidezko itzulpena (berak «ispilu-joko» izendatzen duena), baina askotan beste aukerarik ez dagoela gogoraraziz: «Ispilu-joko hau, egia esan, ez da itzulpen kontuetan gomendagarria, are gehiago, salagarria ere bada. Baina, askotxotan, besterik ezeko bidea denik ezin uka» (Kaltzakorta, 2008: 77).

hizkuntza nagusia gaztelania dela eta txinatar literaturaren gaztelaniazko itzulpen asko zeharbidezko itzulpenak direla (Marin-Lacarta, 2012a, 2012c). Esate baterako, Joseba Sarrionandiak aitortzen digu *Izkiriaturik aurkitu ditudan ene poemak* liburuan tartekatu dituen Du Furen sei poemak Octavio Paz mexikarraren bertsiotik itzuli dituela. Eta badakigu Octavio Pazek ingelesezko eta frantsesezko itzulpenetan oinarrituz itzuli zituela gaztelaniara poema txinatar asko eta asko<sup>19</sup>. Antzeko adibidea eskaintzen digu Kaltzakortak: Txinako ipuinak itzultzeko Borgesek ingelesetik egindako itzulpenetan oinarritu omen zen. Sarrionandiarenak eta Kaltzakortarenak, beraz, itzulpenen itzulpenen itzulpenak dira, eta beste kasu askotan ere berdin gertatzen delakoan gaude. Gainera, baliteke zubi-testuak ere egokitzapen modukoak izatea, edo txinera modernoan egindako egokitzapenen itzulpenak, eta ez zuzenean txinera klasikotik itzuliak. Honekin esan nahi duguna da aipatu ditugun euskal itzulpen horietako gehienek ez zutela irizpide nagusizat hartzen jatorrizkoarekiko hurbiltasuna. Aitzitik, xede-hizkuntzan eta xede-kulturan ondo funtzionatuko zuten testuak sortzea zen idazle-itzultzaile gehienen helburua, eta ez zitzaien axola bertsiotik berriak jatorrizkoarekiko izango zuen distantzia. Askok, gainera, bertsiotik, birsorkuntza edo berridazketa moduan definitzen dituzte beren itzulpenak, poesiaren kasuan batik bat.

Gainera, euskaratutako testu horietako gehienak itzultzailearen beraren inizatibaz itzuli direnez, askotan antologia oso pertsonaletan txertatzeko helburuz, argitaletxeek edota bestelako kanpo-faktoreek ez diote itzultzaileari inolako oztoporik jarri testuok nahierara itzultzeko. Honekin ez dugu esan nahi argitaletxeen eskariz egindako itzulpenak jatorrizkotik hurbilago egon ohi direnik; justu kontra-koa gertatu da, adibidez, txineratik itzultitako testuen argitalpen espainiarrekin: editore batzuek nahiago dute txinatar liburuak frantsesezko edo ingelesezko zubi-testuak erabiliz itzultzea, zubi-testu horiek txinatar literatura irakurleko mendebaldarraren balioetara moldatzeko egindako egokitzapenetatik abiatuta (Marin-Lacarta, 2012a). Kontuak kontu, eta euskal literatur sistemara itzulita, azpimarratu nahi dugu txinatar testuen orain arteko itzulpenak nahiko libreak izan direla oro har, gehienetan itzulpenen itzulpenen itzulpenak direlako eta askotan euskal idazleen sorkuntza-lanaren parte direlako.

### 3. Mo Yan txinatarren *Hori da umorea, maisu!*

Orain arte euskaraz argitaratu diren txinatar literatur testuen ezaugarriak deskribatu ondoren, bi hitz esan nahi genituzke artikulu honen egileok euskaratu dugun Mo Yanen *Hori da umorea, maisu!* lanari buruz. Izan ere, sarreran aipatu dugun bezala, oso baldintza desberdinetan egin dugu itzulpen hau, eta, ondorioz, artikulu honetan katalogatutako itzulpenekin alderatuta oso bestelako ezaugarriak ditu.

---

19. «En 1957 —nos dice Paz—, hice algunas traducciones de breves textos clásicos chinos. El formidable obstáculo de la lengua no me detuvo y, sin respeto por la filología, traduje del inglés y del francés» (Paz *apud* Botton, 2011: 271). Hala eta guztiz ere, gerora garrantzi handia eman zion Pazek jatorrizko testura jotzeari eta jatorrizkoaren ñabardura guztiak itzulpenean agerrarazteari: «Paz en un principio se enfrentó a la traducción de la poesía china de manera totalmente espontánea e inspirándose, como él mismo dice, en traducciones hechas en inglés y en francés; sin embargo, muy pronto sus lecturas, tanto de teóricos como de poetas que a la vez eran sinólogos, le hicieron adoptar una metodología que intentaba reproducir ciertos rasgos sintácticos o de versificación del poema original y también recogía el sustrato filosófico del poema» (Botton, 2011: 279).

Lehenik eta behin, azpimarratzekoa da autore garaikide baten lana itzuli dugula. Orain arte —gogoraraz dezagun—, badirudi Itxaro Borda baizik ez dela ahalegindu txinatar idazle garaikideen zenbait testu itzultzen.

Bigarren desberdintasuna generoari legokioke: *Hori da umorea, maisu!* liburuan biltzen diren zortzi ipuinak eleberri tankerako narrazioak dira, deskribatu ditugun itzulpenetako herri-ipuin edo ipuin fantastikoen aldean oso desberdinak.

Hirugarrenik —eta agian ezaugarri hau da denetan pisuzkoena, gainerako ezaugarri gehienak baldintzatu dituen neurrian—, itzulpena argitaletxe eta erakunde batzuen ekimenez egin dugu, eta horrek eragina izan du hainbat alorretan (itzuli beharreko testuan, epeetan, jasotako diruan...).

Laugarrenik, aurreko gehienak ez bezala, gurea zuzeneko itzulpena izan da, zuzenean txineratik euskaratua.

Azkenik, eta aurrekoarekin lotuta, arreta berezia jarri diogu jatorrizko testuari, irizpide nagusien artean izan baitugu jatorrizko testu txinatarretik hurbil samar egongo zen xede-testu bat sortzea.

#### **4. Txineratik euskarara egindako itzulpenen bilakaera eta itzultzaile-bikoteak**

Ikusitakoak ikusita, eta gure itzulpena artikulua honetan aurkeztu dugun zerrendari gehituta, txineratik itzulpenen bilakaera bat marratzen duten hainbat zantzu badaudela esan genezake. Egia bada ere aipatu ditugun itzulpenak oso heterogeneoak eta oso barreiatuak direla, azpimarratzeko modukoak iruditu zaizkigu itzulpen berriek zaharrenean aldean erakusten dituzten ezaugarri edo berritasunak. Horien artean lehenengoa, agian, zuzenean txineratik itzultzeari ematen zaion garrantzi gero eta handiagoa litzateke. Ikusi dugu zuzeneko lehen itzulpenak 2000ko hamarkadan agertzen direla, Rafa Egigurenen eta Albert Galvany eta Pello Otxotekoren ahaleginei esker. Ordura arte zeharbidez itzultzen zen beti, zubi-hizkuntzaren bat erabilia. Eta baliatutako zubi-hizkuntzei dagokienez ere, bada bilakaera bat hasierako itzulpenetatik berrienera: 1980ko eta 1990eko hamarkadetako itzulpen gehienetan gaztelania erabili zen zubi-hizkuntza gisa (gogoraraz ditzagun kasu honetan salbuespen diren Iparraldeko bi itzultzaileak, Itxaro Borda eta Marcel Etchehandy, testuak frantsesetik itzultzen zituztenak, eta baita Josu Zabaleta ere, 1989an argitaratutako ipuinak itzultzeko gaztelania, frantsesa eta ingelesa erabili baitzituen), ziurrenik huraxe zelako itzultzaile gehienek ondoen zekiten hizkuntza, edo/eta eskuraerraztenak ere hizkuntza hartan egindako itzulpenak zirelako. Gerora, ordea, itzultzaileak hizkuntza batean baino gehiagotan egindako itzulpenak kontsultatzen hasten dira txinatar literatura itzultzeko (Joxe Arregik eta Pilar Lasartek gaztelaniazko, frantsesezko eta alemanezko itzulpenak aipatzen dituzte 2007an argitaratutako itzulpenetako baliatutako zubi-testuen artean, eta Patxi Ezkiagak ere ingelesera, frantsesera edo gaztelaniara egindako itzulpenetan oinarritu zuen bere 2008ko itzulpena). Horrek, gure ustez, zeharbidezko itzulpenarekiko jarrera-aldaketa bat erakusten du: garai batean ez zitzaion garrantzirik ematen zuzenean jatorrizkotik itzultzeari (are gutxiago txinera bezalako hizkuntza hain urrun baten kasuan), eta ez zuten axola handirik itzulpenak jatorrizkoarekiko izan zitzakeen distantzia edo desberdintasunek; aipatu ere,

ez zen ia inoiz aipatzen itzulpena zeharbidez egina zela. Pixkanaka, baina, badirudi zeharbidez egindako itzulpenen kasuan hori aitortu eta justifikatzeko beharra joan dela nagusitzen, eta, txinerarik jakin ezean, zubi-hizkuntza batean baino gehiagotan egindako itzulpenak kontsultatzeakoa, testu beraren itzulpen desberdinak alderatzeak jatorrizkoa hobeto ulertzen lagunduko duela pentsatuta.

Horrekin lotuta, gero eta ohikoagoa den beste fenomeno bat ere aipatu nahi genuke, etorkizunera begira garrantzi gero eta handiagoa hartzen joango dena, gure ustez: elkarlanean egindako itzulpenez ari gara, sorburu-hizkuntzan eta sorburu-kulturan aditua den itzultzaile edo ikertzaile batek eta xede-hizkuntzara itzultzen eskarmentua duen itzultzaile batek osatutako bikoteez, zehazkiago esanda. Halako itzultzaile-bikotea osatzen dute Albert Galvanyk eta Pello Otxotekok, 2.3. atalean aipatu dugun bezala: lehena sinologoa da, eta txineratik gaztelaniarako hainbat itzulpenen egilea; bigarrena, aldiz, euskaraz idazten duen poeta eta itzultzailea. Guk geuk ere antzeko bikotea osatzen dugu: Maialen Marin aditua da txinatar literatura garaikidean eta txineratiko itzulpenetan, eta txineratik gaztelaniara itzuliak ditu zenbait obra garaikide. Aiora Jakak, berriz, euskal literatura eta itzulpengintzara bideratu du bere ikerketa-lerro nagusia, eta euskararako literatur itzulpenean aritua da (gaztelaniatik, frantsesetik, ingelesetik eta alemanetik). Esango genuke halako lan-taldeak beharrezkoak direla literatur itzulpenen kalitatea bermatzeko, batez ere txinera bezalako hizkuntza urrunen kasuan, ez baita erraza euskal itzultzaileen unibertso txikian halako hizkuntzarik ere badakien itzultzailearik aurkitzea. Badirudi, gainera, literaturaren eta itzulpengintzaren alorreko kritikak ere gero eta gehiago baloratzen duela halako taldeen lana. Iñaki Mendiguren eta Sarah Turtle genituzke horren adibide, azken aldian hain goraiatua izan den *Tom Sawyer-en abenturak* (2012) itzulpenaren egileak. 2013ko itzulpeneko Euskadi Saria irabazteaz gain, IBBYren 2014ko Ohorezko Zerrendarako ere hautatu zuten elkarlanean egindako itzulpen hori. Euskadi Saria jaso berritan *Berria* egunkariak bi itzultzaileei egin zien elkarrizketaren goiburuko aipuak nabarmentzen duen bezala, «[i]tzulpen lanaren kalitatea bermatzen du elkarlanak». Kasu honetan, Turtle da sorburu-hizkuntzan aditua, eta Mendiguren, aldiz, xede-hizkuntzarako itzulpenetan eskarmentuduna. Halaxe arituak dira Harry Potter famatuaren abenturak euskaratzen ere, itzulpen horiek Mendigurenek bakarrik sinatu izan dituen arren.

Eta ugari dira antzeko adibideak euskal itzulpengintzan, batez ere euskaldunen artean hain ezagunak edo ezagutuak ez diren hizkuntzen kasuan. Hortxe dugu, esaterako, Andolin Eguzkitzak eta Olga Omatosek elkarrekin itzultitako Kavafisen *Poema antologia* (1995). Ondo baino hobeto definitzen dute itzultzaileek beren elkarlana antologiaren hitzaurrean:

Itzulpena, antologiaren prestaketa osoa bezala, hitzaurre honen izenpetzaileen ahalegin amankomuna izan da, eskuartean duzun eta borobil baten antzera borobila izan gura lukeen lan hau osatzekotan, lotu baino lehenago, mutur bi dauzkan soka bat bezala begira litekeena. Mutur batetan, greziar muturrean, Olga Omatos agertzen da, bera delarik greko moderno eta literatura neohelohenikoaren ezagutzaile eta irakaslea. Beste muturrean, ostera, euskararenean, Andolin Eguzkitza dugu. Bien saioz eta eginahalez heldu gara honaino (Eguzkitza eta Omatos, 1995: 24).

Eta elkarlanean egindako itzulpenak zerrendatzen hasita, ezin dugu aipatu gabe utzi *Elizen Arteko Biblia* (1994) itzultzeko egindako talde-lan eskerga. Kasu honetan, Biblia ez zuen itzultzaile-bikote batek itzuli, hainbat bikotek baizik:

[L]iburu bakoitzaz bikote bat arduratu ohi zen, bata exegeta eta itzultzailea bestea; ondoren, bikote horrek sortutako oinarrizko itzulpena gainerako itzultzaileen eskutik pasatzen zen, eta beste talde zabalagoen eskutik ere bai: berrikusleak batzuk, irakurle arruntaren ordezkariak besteak (Irizar, 1995: 71-72).

Argi dago euskal itzultzaileen talde murrizta sorburu-hizkuntza eta -kulturetan adituak diren ikertzaile-itzultzaileekin osatu beharra dagoela hizkuntza eta kultura urrunetako lanen kalitatezko itzulpenak ugaritzea nahi badugu. Eta beste hainbeste esan dezakegu euskaraz idatzitako literatura beste hizkuntzetara itzultzeari dagokionez ere. Elizabete Manterolak bere tesian ondo aztertu duen bezala (Manterola, 2013: 82-90), euskaratik gaztelaniara itzultzen diren literatur lan asko kolaborazioan egindako itzulpenak izan ohi dira, autorearen beraren eta gaztelaniara itzultzen duen itzultzaile baten arteko elkarlanaren fruitu. Baina kolaborazio edo elkarlan horrek ez du soilik euskal literatura gaztelaniara itzultzeko balio: oraindik ere gaztelaniaren bitartekaritzaz egiten diren itzulpenak nagusi diren arren, gero eta gehiago dira euskaraz idatzitako lanak gaztelania ez beste hizkuntzetara zuzenean euskaratik itzultzen ahalegintzen direnak eta horretarako elkarlanean jarduten dutenak. Manterolaren ikerketak erakusten duen bezala (Manterola, 2013: 84-85),

[askotan gertatzen da] itzultzaileetariko batek xede hizkuntza guztiz ondo ez menderatzea eta jatorrizkoa ama hizkuntza izatea; bigarren itzultzaileak, berriz, alderantziz, xede hizkuntza ama hizkuntza du baina ez du jatorrizkoa guztiz menderatzen. Bien arteko elkarlanean, jatorrizkoa ongi ulertu ahal izango dute eta xede hizkuntzan testu egokia sortu. Euskaratik errusierarako itzulpenak egin dituzten Roberto Serrano eta Roman Ignatiev izan daitezke prozesu horren adibide: «Serranok egiten du oinarrizko itzulpena eta Ignatievek lana zuzendu, egokitu eta biribildu».

Iruditzen zaigu halako bikoteen artean elkarlanean egindako itzulpenek bermatuko dutela euskararen eta oraindik urrun samar gelditzen zaizkigun hizkuntzen arteko itzulpenen kalitatea, bai norabide batean egindakoa, bai bestean egindakoa; izan ere, Txineratik euskaratutako lanak urriak baldin badira, are urriagoak baitira alderantzizko norabidean egindako itzulpenak.

## 5. Ondorioak

Txineratik euskarara oso lan gutxi itzuli dela esanez hasi dugu artikulua hau, horixe izan baitzen gaiari heldu genionean izan genuen lehen irudipena: txinatar literaturaren itsaso zabaletik zipriztin bakan batzuek baizik ez dituztela busti euskal literaturaren orrialdeak. Azterketa hau egin ondoren, ez dezakegu esan gure hasierako irudipena erabat okerra zenik, baina aitortu behar dugu guk uste baino «zipriztin» gehiago aurkitu ditugula han-hemenka barreiatu, hainbat euskal idazle-itzultzailearen artean txinatar literaturak piztu izan duen interesaren erakusle. Edonola ere, argi dago txinatar literatura euskaraz irakurtzeko aukera oso mugatua dela oraindik, eta mota jakin bateko literatura bakarrik iritsi zaigula Asia ekialdeko lurralde urrun hartatik: ikusi dugun bezala, literatura klasikoa euskaratu da nagusiki, ia eskusiboki; generoen aldetik, berriz, poesia, ipuinak eta pentsamen-

duaren alorreko testuak baizik ez dira itzuli; kasu ia guztietan, gainera, itzultzaileen ekimenez egin dira itzulpenak, argitaletxe edo erakunderen baten eskariz egin beharrean; bestalde, itzulpen gehienak zeharbidezkoak izan direla ikusi dugu, kasu gehienetan zubi-hizkuntza gisa gaztelania erabiliz eginak; azkenik, itzultzeko moduari buruz esan liteke jatorrizkoarekiko hurbiltasuna ez dela izan txineratik euskaratu duten itzultzaileen irizpide nagusia, xede-hizkuntzan eta xede-kulturan ongi funtzionatuko zuten testuak sortzea baizik.

Ezaugarri horiekin alderatuta, guk itzuli dugun Mo Yanen *Hori da umorea, maisu!* lanak baditu hainbat berrikuntza: XX. mendearen azken hamarkadetan idatzitako lana da; narrazio edo eleberri moduko ipuinak biltzen ditu; itzulpena argitaletxe eta erakunde batzuen ekimenez egin da; zuzenean euskaratu da txineratik; eta sorburu-testuari ahalik eta hurbilenetik jarraitzea izan da itzultzaileon irizpide nagusia.

Edonola ere, gure asmoa ez da izan euskal itzultzaileek orain arte egindako lana gutxietsi eta gure itzulpena goraiatzea, ezta inondik ere; gure itzulpenaren ezaugarriak beste itzulpenen berezitasunekin alderatzearen helburua izan da txineratik euskal itzulpenetan eta, oro har, euskal itzulpengintzan hauteman daitkeen bilakaeraren berri ematea, iruditzen baitzaigu gure itzulpenaren ezaugarriak bat datozela azken aldian nagusitzen ari diren zenbait joerarekin.

Esate baterako, ikusi dugu gero eta garrantzi handiagoa ematen zaiola zuzenean jatorrizko hizkuntzatik itzultzeari. Ildo beretik, gero eta gehiago baloratzen da gu bezalako bikoteen lana —jatorrizko hizkuntzan aditua den itzultzaile batek eta xede-hizkuntzara itzultzen ohituta dagoen profesional batek osatutakoena— hain ezagunak edo gertukoak ez diren hizkuntzetako lanen itzulpenean, ikusten baita elkarlan horrek ahalbidetzen duela sorburu-testutik hurbil dauden etaaldi berean xede-hizkuntzan ondo funtzionatzen duten testuak sortzea. Gainera, gure azterketa txineratik euskarara itzulitako lanetara mugatu dugun arren, esango genuke alderantzizko norabidean ere gero eta garrantzi handiagoa izango duela fenomeno honek: halako itzultzaile-bikoteei esker zabalduko ahal da euskal literatura txineraz ere!

## Bibliografia

(Oharra: itzulpengintzari buruzko artikulua denez, itzulpenak itzultzailearen izenaren arabera kokatu ditugu bibliografian. Kako zuzenen artean adierazten da jatorrizko obraren idazlea nor den)

Anselmi, L. (2006): *Bertzerenak*, Pamiela, Iruñea.

Aramaio, I. [itz.] (1985): *Gartzelako egunkaria. Ho Chi Minh*, Susa, Lizarra.

Arregi, J. eta P. Lasarte [itz.] (2007): *Dao de jing* [Laozi], Ibaizabal, Amorebieta-Etxano.

Askoren artean (1984): *Alkohola poemak*, Pamiela, Iruñea.

Askoren artean (1994): *Elizen Arteko Biblia*, Bibli Elkarte Batuak-Euskal Elizbarrutiak, Lazkao-Donostia.

Borda, I. [itz.] (1985): "Txinako poesiaz" [hainbat idazle txinatarren poemak], *Maiatz*, **10**, 13-23.

—————, (2001): "Traditore ala?", *Hegats*, **29**, 25-39.

- Botton, F. (2011): "Octavio Paz y la poesía china: las trampas de la traducción", *Estudios de Asia y África*, **46(2)**, 269-286 [Interneten: [http://codex.colmex.mx:8991/exlibris/aleph/a18\\_1/apache\\_media/NJGVQD4BR SFYVC3N3L9V11J1Q6D5CY.pdf](http://codex.colmex.mx:8991/exlibris/aleph/a18_1/apache_media/NJGVQD4BR SFYVC3N3L9V11J1Q6D5CY.pdf)].
- Egiguren, R. (2003): *Mandarin Dotore: VIII. mendeko olerkiak*, Gaztelupeko Hotsak, Soraluze.
- , (2011): *Gauza guztiak*, Pamiela, Iruñea.
- Eguzkitza, A. eta Omatos, O. (1995): *Poema antologia. K.P. Kavafis*, Pamiela, Iruñea.
- Etchehandy, M. (1985): "Xinatar ipui" [sei ipuin txinatar anonimo], *Maiatz*, **10**, 24-26.
- Etxaide, M. [itz.] (1986): *Larruzko botaren ikerketa - Txinar anonimoa*, La primitiva casa Baroja, Donostia.
- Etxaniz, X. [itz.] (1988): *Berdez jantzitako neska (Txinako ipuinak I)*, Pamiela, Iruñea.
- , [itz.] (1992): *Zazpi ahizpak (Txinako ipuinak II)*, Pamiela, Iruñea.
- Ezkiaga, P. [itz.] (2008): *Analektak* [Konfuzio], Ibaizabal, Euba.
- Gaztelupeko Hotsak (2003): "Mandarin Dotore" [Rafa Egigurenen *Mandarin Dotore* lanaren aurkezpen-testua], [Interneten: <http://www.hotsak.com/artistak/mandarin-dotore>].
- Galvany, A. eta Otxoteko, P. [itz.] (2005): *Urrutira bidalia* [Li Bairen poemak], Alberdania, Irun.
- Garmendia, E. (2010): *Maria Pilar Lasarte Zubitur (Bidegileak)*, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Gasteiz.
- Irizar, R. (1995): "Elizen arteko biblia eta itzulpengintza", *Uztaro*, **15**, 67-79.
- Izaga, X. [itz.] (1995): *Gerraren antzea* [Sunzi], Txalaparta, Tafalla.
- Jaka, A. (2012a): *Itzulpenari buruzko gogoeta eta itzulpen-praktika Joseba Sarrionandiaren lanetan*, Euskal Herriko Unibertsitatea eta Euskaltzaindia (Iker 28), Bilbo.
- , (2012b): "Antologia latinoamerikarrak, munduko literaturaren eta euskararen arteko zubi: Joseba Sarrionandiaren zeharkako itzulpenak", in F. García Murga eta N. Madariaga Pisano (arg.), *Hitzen artean. Axun Aierbe gogoan*, Udako Euskal Unibertsitatea, Bilbo, 103-120.
- Jaka, A. eta Marin-Lacarta, M. [itz.] (2013): *Hori da umorea, maisu!* [Mo Yan txinatarren zortzi ipuin], Elkar, Donostia.
- Juan, M. de (1962): *Segunda antología de la poesía china*, Revista de Occidente, Madril.
- Kaltzakorta, X. [itz.] (1988a): *Pu Songlingen ipuinak*, Labayru eta Bizkaiko Aurrezki Kutxa, Bilbo.
- , [itz.] (1988b): *Ekialdeko ipuin miresgarriak*, Labayru eta Bizkaiko Aurrezki Kutxa, Bilbo.
- , (2008): "Txinako literatura eta euskal ipuinak", *Hermes: pentsamendu eta historia aldizkaria*, **27**, 76-79 [Interneten: <http://www.sabinoarana.org/sabinoarana/ftp/Hermes/hermes27.pdf>].
- Kittel, H. eta Frank, A. P. (1991): "Indirect Translation in Eighteenth-Century Germany - Introduction", in H. Kittel eta A. P. Frank (arg.), *Interculturality and the Historical Study of Literary Translations*, Eric Schmidt, Berlin, 3-4.
- Krutwig, F. [itz.] (1968): *Liberalkeriari aitzi* [Mao Zedong], Irabia [s/I].
- , [itz.] (1968): *Praktikaz* [Mao Zedong], Irabia [s/I].
- , [itz.] (1969): *Iazargoaz* [Mao Zedong], Irabia [s/I].
- , [itz.] (1972): *Mao Tzedung buruzagiaren aiphuak* [Mao Zedong], Irabia [s/I], [Interneten: [http://borrokagaraia.files.wordpress.com/2012/07/mao\\_tzedung\\_buruzagiaren\\_a\\_iphuak.pdf](http://borrokagaraia.files.wordpress.com/2012/07/mao_tzedung_buruzagiaren_a_iphuak.pdf)].
- López Gaseni, M. (2000). *Euskarara itzulitako haur eta gazte literatura: funtzioak, eraginak eta itzulpen-estrategiak*, Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua, Bilbo.



- López Moraleda, M. A. eta Martínez Castellote, R. [itz.] (1985): *Cuentos chinos*, Miraguano Ediciones, Madril.
- Manterola, E. (2012): *Euskal literatura beste hizkuntza batzuetara itzulia. Bernardo Atxagaren lanen itzulpen moten arteko alderaketa* [doktore-tesia], Euskal Herriko Unibertsitatea [Interneten: [http://www.ehu.es/argitalpenak/images/stories/tesis/Humanidades/ELIZABETE\\_MANTEROLA.pdf](http://www.ehu.es/argitalpenak/images/stories/tesis/Humanidades/ELIZABETE_MANTEROLA.pdf)].
- Marin-Lacarta, M. (2012a): *Mediación, recepción y marginalidad: las traducciones de literatura china moderna y contemporánea en España* [doktore-tesia], Institut National des Langues et Civilisations Orientales eta Universitat Autònoma de Barcelona [Interneten: <https://www.educacion.gob.es/teseo/mostrarRef.do?ref=985110>].
- , (2012b): “La traducción indirecta de la narrativa china contemporánea al castellano: ¿síndrome o enfermedad?”, *1611: Revista de Historia de la traducción*, **2** [Interneten: <http://www.traduccionliteraria.org/1611/art/marin.htm>].
- , (2012c): “A Brief History of Translations of Modern and Contemporary Chinese Literature in Spain (1949-2009)”, *1611: Revista de Historia de la traducción*, **6** [Interneten: <http://www.traduccionliteraria.org/1611/art/marin2.htm>].
- Mendiguren, X. eta Turtle, S. [itz.] (2012): *Tom Sawyer-en abenturak* [Mark Twainen *The Adventures of Tom Sawyer*en itzulpena], Alberdania-Erein-Igela, Irun-Donostia-Iruñea.
- , (2013): “Itzulpen lanaren kalitatea bermatzen du elkarlanak” [elkarrizketa], *Berria*, 2013-10-30, 31.
- Moya, A. P. [itz.] (1982): *Los cuentos fantásticos chinos*, Crítica, Bartzelona.
- Onaindia, S. (1968): “Mao Tse-Tung-en olerkiak”, *Oleri* 1968 (I-II), 81-84.
- Paz, O. (1973): *Versiones y diversiones*, Galaxia Gutenberg & Círculo de Lectores, Bartzelona.
- Peradejordi, G. [itz.] (1984): *Cuentos mágicos chinos*, Obelisco, Bartzelona.
- Radó, G. (1975): “Indirect Translation”, *Babel: Revue Internationale de la Traduction = International Journal of Translation*, **21 (2)**, 51-59.
- Ringmar, M. (2007): “Roundabout Routes: Some Remarks on Indirect Translations”, in F. Mus (arg.), *Selected Papers of the CETRA Research Seminar in Translation Studies* 2006, [Interneten: <http://www.arts.kuleuven.be/cetra/papers/files/ringmar.pdf>]
- Santisteban, K. [itz.] (1987): *Itsasoko mamuak* [Pu Songlingen ipuinak], Kriselu, Donostia.
- Sarrionandia, J. [itz.] (1982): “Poema batzu” [Li Bai txinatarraren hainbat poema], *Idatz & Mintz* 3-4, separata.
- , (1985): *Izkiriaturik aurkitu ditudan ene poemak*, Pamiela, Iruñea.
- , (1991): *Hezurrezko xirulak*, Elkar, Donostia.
- , (2002): “Joseba Sarrionandia” [elkarrizketa], in H. Etxeberria, *Bost idazle Hasier Etxeberriarekin berbetan*, Alberdania, Irun, 277-346.
- Toury, G. (1976): “The Nature and Role of Norms in Literary Translation”, in G. Toury (1995), *Descriptive Translation Studies and Beyond*, John Benjamins, Amsterdam-Philadelphia, 53-69.
- , (1988): “Translating English Literature via German – and Vice Versa: A Symptomatic Reversal in the History of Modern Hebrew Literature”, in H. Kittel (arg.), *Die literarische Übersetzung: Stand und Perspektiven ihrer Erforschung*, Erich Schmidt, Berlin, 129-157.
- , (1995): “A Lesson from Indirect Translation”, in G. Toury, *Descriptive Translation Studies and Beyond*, John Benjamins, Amsterdam-Philadelphia, 129-146.

- Xu, Jianzhong (2003): "Retranslation: Necessary or Unnecessary", *Babel: Revue Internationale de la Traduction = International Journal of Translation*, **49(3)**, 193-202.
- Zabala, K. (2010): *Zubi bat Drinaren ganean* [Ivo Andritxen *Na Drini uprija* eleberriaren itzulpena], Alberdania & Elkar, Donostia.
- , (2013): "Ivo Andritxen *Zubi bat Drinaren ganean* eta zeharbidezko itzulpena", *Senez*, **44**, 123-141.
- Zabaleta, J. [itz.] (1987): "Txinako ipuinak", *Egan*, **1/2** (1987ko urtarril-apirila), 73-84.
- , [itz.] (1989): *Txina zaharreko kontu zaharrak*, Erein, Donostia.
- Zubillaga, N. (2013): *Alemanetik euskaratutako haur- eta gazte- literatura: zuzeneko nahiz zeharkako itzulpenen azterketa corpus baten bidez* [doktore-tesia], Euskal Herriko Unibertsitatea [Interneten: <http://www.ehu.es/argitalpenak/images/stories/tesis/Humanidades/8670ZubillagaEU.pdf>]



